


KASU-IKERKETA:
URDAIBAI (EUSKAL HERRIA)
EGITASMOAK EZAGUTUZ ETA DIAGNOSTIKOAK
KOLEKTIBOKI PARTEKATUZ

Xabier Arana Eiguren

Honako hauen lankidetzarekin:
Alfonso Dubois, Jokin Alberdi, María Oianguren,
Efren Areskurrinaga, Andreas Schäfter eta Ana Etxarte



Gernika Gogoratuz

Gernika Gogoratuz, Bakearen Aldeko Aztertegia, bakearen aldeko ikerketa zentro bat da, Eusko Legebiltzarraren erabakiz 1987ko apirilean sortua, Gernikako bonbardaketaren 50. urteurrenarekin bat etorriz. 1995etik aurrera **Gernika Gogoratuz Fundazioak** babesten du, eta izen bereko elkarte bat du. Ez du irabazi-asmorik eta independentea da.

Gernikaren sinbologia sendotzea du helburu, atzera eta aurrera begira: atzera begira, bertako historia gogoratuz eta ohoratuz, eta aurrera begira, hausnarketa zientifikoan oinarrituta bakea lortzen lagunduz, hau da, bake askatzailea, bidezkoa eta adiskidetzaila lortzen lagunduz, hala Euskal Herrian nola mundu osoan.

Hau du bere ikuspegiaren ardatza: bai tokiko esparruan eta bai mundu mailan bakearen aldeko ikerketa eta ekintzaren erreferentziazko gune sortzailea izatea, sentsibilitate desberdinak bilduta, gizarte-eraldaketa eta aldaketak eragiten laguntzeko, bakearen kultura lortze aldera.

Bakea eraikitzeko esparruan dihardu lanean, ikerketaren bidez, prestakuntzaren bidez, eskuhartzeen bidez eta dibulgazioaren bidez, hartara lan-sareak sendotzeko eta Gernika munduko bake-rako faktoreetako bat izan dadila lortzeko.

Jardunaldi akademikoak, sozialak, kulturalak eta artistikoak antolatzen ditu: Kultura eta Bakearen Jardunaldiak, Artearen eta Bakearen inguruko Topaketak, Antimilitarismo eta Memoria Historikoaren Jardunaldiak, eta Bakearen Ekonomiari buruzko Laborategiak.

Hainbat lan argitaratzen ditu **Gernika Sarea** proiektu editorialean (berradiskidetzearen aldeko prozesuetan laguntzeko nazioarteko sarea).

KASU-IKERKETA:
URDAIBAI
(EUSKAL HERRIA)

EGITASMOAK EZAGUTUZ
ETA DIAGNOSTIKOAK
KOLEKTIBOKI PARTEKATUZ

Agerkari hau egitea posible izan da Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (AVCD-Elankidetz) eta Gernika Gogoratuz Bakearen Ikerketarako Elkartearen finantzaketari esker, Gernikatik Mundura elkartearen laguntzarekin.



KASU-IKERKETA:
URDAIBAI (EUSKAL HERRIA)

**EGITASMOAK EZAGUTUZ
ETA DIAGNOSTIKOAK
KOLEKTIBOKI PARTEKATUZ**

Xabier Arana Eiguren

Honako hauen lankidetzarekin:

Alfonso Dubois, Jokin Alberdi, María Oianguren,
Efren Areskurrinaga, Andreas Schäfer eta Ana Etxarte

Gernika Sarea Bliduma

Bildumaren zuzendaria: María Oianguren Idigoras

Itzulpena: Bakun, S. L.

Argitaratze-koordinazioa: Mercedes Esteban eta Blanca Pérez Fraile.

Diseinua eta maketazioa: eMeriel.

Azaleko irudia: goikipedia.

© Xabier Arana, Alfonso Dubois, Jokin Alberdi, María Oianguren, Efren Areskurrinaga, Andreas Schäfter eta Ana Etxarte, 2019

© Bakearen Aldeko Ikerketarako Elkartea Gernika Gogoratuz, 2019

Artekalea, 1-1.º • 48300 Gernika-Lumo

Tel.: 946 25 35 58

Posta elektronikoa: info@gernikagogoratuz.org

<http://www.gernikagogoratuz.org>

ISBN: 978-84-09-17642-7

aurkibidea

BUSTURIALDEA-URDAIBAI ESKUALDEAREN DESKRIBAPEN OROKORRA	14
IKUSITAKO ARAZO ETA ERRONKA NAGUSIEN AZTERKETA, ETA IDENTIFIKATUTAKO ERRESISTENTZIA ETA ALTERNATIBENA	15
ONDORIOA	30
BIBLIOGRAFIA	33
1. ERANSKINA. BUSTURIALDEA-URDAIBAICO GIZARTE-EKOSISTEMA: GIZARTE ZIBILEKO ELKARTEAK	36
2. ERANSKINA. ARAZOAK ETA ERRONKAK ETA ERRESISTENTZIAK ETA ALTERNATIBAK BUSTURIALDEA-URDAIBAIN	39
3. ERANSKINA. GIZARTE ZIBILAREN ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOEN ARTEAN EGITEN DIREN EGITASMOAK	44



Xabier Arana Eiguren

Xabier Arana Eiguren Biologian lizentziatua da, eta Ingurumenaren Ebaluazioan eta Lehengoratzean masterra du. Urdaibaiko Biosfera Erreserbako zuzendaria izan zen 1996tik 2007ra bitartean, Euskadiko Biologoek Elkargo Ofizialeko Ingurumen Batzordeko kidea, eta 2012tik, Bizkaiko Foru Aldundiko Iraunkortasun eta Ingurumen Hezkuntza Saileko burua da. Besteak beste, Aranzadi Zientzia Elkarte eta Lurgai Fundazioko kidea da. Natur ondarearen kontserbazioari, lurralde-antolamenduari, ingurumen-hezkuntzari eta, oro har, ingurumenaren iraunkortasunari buruzko ikerketa- eta dibulgazio-artikulu ugariaren egilea da.

Urdaibai Taldea 2018an hasi zen lanean. Ikerketa talde hori dozena bat inguru kidek osatzen dute; hain zuzen, Gernika Gogoratuz eta Gernika Mundura tokiko erakundeetako kideek, kolaboratzaileek nahiz Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasleek abiatu zuten. Eskualdeko erakunde-eragileei eta gizarte-mugimenduei buruzko ikerketa diseinatzea —ikuspegi metodologikoa— izan zen haien lana, bai eta elkarte sozialekin partekatutako gogoeta bati ekitea ere, Urdai-baiko Biosfera Erreserbako eta Busturialdea eskualdeko (Euskal Herria) ingurumenari, kulturari, ekonomiari, gizarteari eta politikari lotutako gatazka eta erronka nagusiak aztertzeke. Arazoen eta erronken hasierako diagnosi horren ostean, elkarte-mugimenduen barruan azaleratzen eta artikulatzen joan ziren erresistentziak eta alternatibak detektatu ziren.

«Gatazka egoeran dauden lurraldeak» nazioarteko ikerketa-proiektuaren markoan, hiru ikerketa hasi dira, hau da, Cabo Delgadokoa (Mozambike), Cajamarcakoa (Kolonbia) eta Urdaiabaikoa (Euskal Herria). Ikerketa-proiektuetan gaitasun kolektiboari buruzko ikuspegi komun bat bilatzeko asmoz, eta ondoren lurralde bakoitzeko gizarte-mugimenduen egitasmoak, esperientziak eta gaitasunak partekatzeko aukera izateko asmoz, lau arlo komun definitu ziren:

- Ingurumenaren iraunkortasuna.
- Lurraren eskuragarritasuna.
- Genero-desberdintasunak.
- Identitatea kulturala.¹

Ikerketa horri heltzeko, ikusi zen ezinbestekoa zela eskualdeko eragile kolektiboek parte hartzea, eta norbanakoei dagokienez, zubi-lanak

1. Urdaiabairen kasuan, azken atal horri euskal hizkuntzaren (euskara) gaia gehitu behar zaio.

egin ditzaketen eta erreferentziazkoak diren pertsonen parte hartzea. Haien ekarpenak biltzeko, tailerrak egitea proposatu zen, bi zatitan banatuta: pertzepzio pertsonaletik abiatuta eman ziren lehen azalpenak, eta ikerketaren ekarpen gisa, jasotako ezagutzen txosten bat egin zen, kolektiboa aberasteko. Hauek ziren asmoak:

1. Urdaibai eskualdearen errealitateari buruzko begiradak, arazo eta erronka nagusiak nahiz martxan jartzen ari diren erresistentziak eta alternatibak azalratzea eta trukitzea; hau da, lurraldearen ezaugarri propioak deskribatuko dituen diagnosi bat egitea.
2. Lurraldearen oraingo eta etorkizuneko bizitza markatzen duten gatazka nagusiak identifikatzea: erauzketa-, etxebizitza- eta baso-ustiapena, botere faktikoak eta baztertutako sektoreak, lurraldearen gobernantza, eta abar.
3. Lurraldean dauden eragileei errealitatea errazago azaltzea, eragina izango duten proiektuekin eta aukera alternatiboei buruzko kezkatik abiatuta; katalogo huts batetik harago joatea da kontua, eta haien gaitasun kualitatiboei buruzko analisi bat eskaintzea.
4. Lurraldean dauden eragileen errealitatea, eragiteko aukera eta gaitasunak ezagutzea, bai eta haien dinamikak, elkartzeko espazioak, sareak eta taldeen artean eta talde horiek tokiko instituzio publikoekin dituzten harremanak ezagutzea ere.

Eskualdeko eragileen talde zabal eta askotariko batekin lau tailerren bidez egindako landa-lanaren ostean (2018ko ekainaren eta 2019ko urtarrilaren artean), gizarte-eragileen eta aktibo dauden prozesu kolektiboen irudikapen bat egin zen. Tailer horien abiapuntuan, antolatutako aktibismoaren eta eskualdean aktibo dauden egitasmoen ikerketa-taldearen aurretiazko azterketa bat zegoen, eta informazioa, ezagutza eta baliabideak sortzeko aukera eman zuten tailerrek, azken hamarkadetan ezartzen ari den eredu zentralizatzaile, merkantilista eta gizagabetuari aurre egiten dioten eta alternatibak eskaintzen dituzten esperientziak babesteko.

Ikerketa honetako partaidetza-ereduari eutsiz, elkarte sozialekin izandako hurbilpena eta harremana mintegi edo tailer gisako topaketan bidez egin zen, eta bi fasetan gauzatu zen. 2018an, hiru tailer osagarri egin ziren: bat orokorra, Astran (Gernika-Lumoko kultur sorkuntzarako gizarte-fabrika), eta beste bi Bermeo inguruko eragileen partaidetza bultzatzeko (eskualdeko beste herri nagusia), horietako bat

KASU-IKERKETA: URDAIBAI (EUSKAL HERRIA)

gazteentzat propio. 2019ko urtarrilean, berriro egin zitzairen deialdia gizarte-mugimenduei eta beste eragileei. Aurrez egindako tailerren emaitzak ezagutu ostean, eskualdeari buruzko eta oinarriko komunitatetik hasitako ekintzei buruzko ikuspegia zabaldu eta indartu zuten.

Tailerren bidez egindako partaidetza-saioetan, gaien arabera eta taldeka, galdera hauek proposatu ziren:

- Zein arazo eta erronka daude? Zein erresistentzia eta alternatiba identifika daitezke?
- Arlo bakoitzean dauden erresistentziak eta alternatibak aski al dira? Esanguratsuak al dira?
- Eskualdean dauden arazo eta erronketatik zeinek ez du erantzun alternatiborik?
- Zein taldek edo erakundek du alternatibarik argiena eta egingarriena? Haien ezaugarrien artean zeinek egin du posible proposamen hori?
- Parte hartzeko eta erabakitzeko behar adina espazio al daude maila sozial eta instituzionalean? Zein espazio ofizial edo alternatibo daude?

Behin ikuspegi hori osatutakoan, eskualdeko erreferentziatzko pertsoneri egindako elkarrizketen txandari ekin zitzaion. Askotariko profilak dituzten pertsoneri egin zitzaizkien elkarrizketak, tailerretan bildutako ikuspegiak kontrastatu ahal izateko nahiz gizarte-mugimenduen eta tokiko Administrazioaren artean partekatutako egitasmo, lankidetzaren dinamika eta proiektu berriak detektatu ahal izateko.

Proiektuaren helburua ez da Urdaibairen etorkizunarentzako eredu edo proposamen zehatz bat eskaintzea, baizik eta bizi-alternatiba hobeto alderatu eta borroka egiten duten eskualdeko eragileek gaur egungo markoa aurkeztea. Premisa bat dago abiapuntuan: askotariko eragile indibidual eta kolektiboen artean bizikidetzaren aktibitatea eta sortzailea lortzeko duen gaitasuna dagoela gizarte baten benetako aberastasunaren oinarrian. Beraz, pentsatzeko eta ekiteko gaitasuna duten eta sareak eta espazio komunak sortuz elkarrekin erlazionatzen diren eragileak egotearen mende dago Urdaibairen etorkizuna: ahalegin horiek guztiak metatzeko gai den proiektu komun bat baldin badao bakarrik izango da posible dinamika positibo hori (Dubois, 2019).

Alde horretatik, proiektuaren helburua da ikuspegi ezberdinen arteko harreman eta ezagutza falta gaitzetea, batzuetan ikuspegiak gehiegi zatikatuta eta talde bakoitzari gehiegi lotuta daudelako. Hala,

kezka komunak identifikatu nahi dira, dauden egitasmoen aberastasuna ezagutaraziz eta eragilean artean ikuspegiak eta proposamenak parte-katzeko espazioak eskainiz. Beharrezkoa izango da deliberaziorako espazio horiek arreta berezia jartzea tradizioz baztertu egin izan diren sektoreei (gazteak, emakumeak, LGTBI+ kolektiboa, adinekoak, migratzaileak, langabeak...), arazoan eta proposamenen identifikazioan parte har dezaten haiek ere.

Gogoeta- eta ikerketa-taldeak Urdaibaiko Biosfera Erreserbako gatazka ekologiko, sozial, politiko, ekonomiko eta kultural nagusiak aztertu nahi izan ditu, eta, horrez gain, informazioa eta ezagutza ere sortu nahi izan du, azken urtetan sortzen ari diren eta eredu hegemonikoari aurre egiten dioten erresistentzia- eta alternatiba-proposamenak sustatzeko. Txostena egiteko, ahalik eta pertsona (norbanako moduan) nahiz eragile kolektibo gehienek parte hartzeko ahalegina egin zen.

Ikerketaren emaitzen berri eman aurretik, pare bat kontu argitu behar dira:

1. Fase honetan, ikerketa ahalegindu da errealitate sozial osoa eta tokiko egitasmo guztiak biltzen, hurrengo puntuan egiten den salbuespenarekin. Seguru «ihes egin» dutela talde eta ekintza-eremu batzuek: jende gutxi bizi den herrietakoak direlako eta komunikabideetan gutxi agertu direlako; talde batzuek beren espaziotik eta anonimotasunetik funtzionatzen dutelako; eta ekintza puntualak sustatzen dituztenak ere badaudelako, «gerrila urbano» moduan aritzen direnak, proposamen zehatz baten edo/eta salaketaren bidez.
2. Era berean, kontuan hartu behar da ikerketa honetan baztertu egin dela aisialdiari eta kirolari lotutako egitasmoen eremu osoa, hau da, egitasmo tradizional nahiz modernoak, informalak nahiz federatuak. Izan ere, eremu horretan jarduera oso zabala eta ugaria dago Busturialdea-Urdaibai eskualdean. Hala ere, aipagarria da taldeek eta klubek antolatzeko eta eskualdeko biztanleriaren sektore handi bat mobilizatzeko duten gaitasuna. Klubetako batzuk aurreko mendeko 80ko hamarkadan sortu ziren, opiaseo forma ezberdinetan hedatutako drogek Busturialdeko biztanleen artean eragindako kolpe dramatikoari aurre egiteko alternatiba gisa. Hain zuzen, egoera hori larritu egin zuen HIESaren hedapenak, eta areagotu egin zen gizon-emakumeen profil guztientzako proposamen inklusiboak sortzeko beharra.

BUSTURIALDEA-URDAIBAI ESKUALDEAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren lurralde-eremua, hein handi batean Busturialdea eskualdearekin bat datorrena, Bizkaiko Lurralde Historikoaren parte da, eta Iberiar penintsularen iparraldean dago, Kantauri itsasoaren urek blaitzen dutelarik (Arana, 2019). Historiarretik bizi da jendea han, eta 20 udalerrik osatzen duten lurraldea da. Historian zehar, eraldaketa handia jasan du, batik bat XX. mendean eta XXI. mendearen hasieran. 45 000 biztanle inguru ditu, eta hango paisaiak askotariko jarduerak biltzen ditu: nekazaritzari, abeltzaintzari, arrantzari nahiz basogintzari lotutako jarduera tradizionalak, eraikuntza, industria eta zerbitzuei eta turismoari lotutako eskaintza zabala. Udalen, mankomunitateen, partzuergoen eta beste figura juridiko batzuen bueltan egituratzen da tokiko egitura administratiboa, eta Bizkaiko Foru Aldundia (Lurralde Historikoko Administrazioa), Eusko Jaurlaritza (autonomikoa), Espainiako Gobernua (administrazio zentrala) eta Europar Batasuneko instituzioak batzen zaizkie horiei. Gizarte-ehuna zabala eta askotarikoa da, eta forma aldetik, batik bat elkarrean figura erabiltzen da, nahiz eta badauden bestelakoak ere, esate baterako, auzokoen komunitateak, fundazioak eta lotura sozialerako bestelako modu ez-formalak (adibidez, batzarrak).

IKUSITAKO ARAZO ETA ERRONKA NAGUSIEN AZTERKETA, ETA IDENTIFIKATUTAKO ERRESISTENTZIA ETA ALTERNATIBENA

■ Eskualde-ikuspegiari buruzko alderdi orokorrak

Ikuspegi oso zabal batetik begiratuta, Busturialdea-Urdaibai eremuaren garapen integralerako estrategiarik ez dagoela nabarmendu da. Gune horri lotutako azterketa, diagnosi eta plan asko daude egin da —eranskin moduan daude—, baina oraindik ere lurralde ereduari eta eredu sozial, ekonomiko eta kulturalari lotutako definizio baten gabezia sakona dagoela uste da. Ingurumenaren arloan egin da lanketarik zehatzena, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren figura eta Natura 2000ko (babestutako espazioen Europako sarea) tokiak edukitzeak dituen eraginengatik. Eskualdearen etorkizun ekonomikoak kezka eragiten duela ikusi da —sektore ekonomiko guztien gainbehera—, eta langabezia,

lanean prekaritatea eta gazteen aukera falta dira gaur egungo arduragusiak. Horregatik, zenbait eragileren ikuspegia da ez dagoela diagnosi partekaturik eta ez dagoela batera aritzeko eskualdeko planik —«ez dago gizartea-Administrazioa kanalik»—; horrez gain, eskualdea eta haren beharrak defendatzeko subjektu proaktiboak izango den liderrik ez dagoela uste da. Aldi berean, irmotasunez esaten da erabakiguneak Bilbon metatu direla, eta eskualdeak periferian geratu direla; Busturialdean, orain, erabakiguneak probintziako hiriburura eramateko azken prozesuak ari dira bultzatzen, eta horren adibide garbia da Busturialdeko Ur Partzuergoaren desagertzea, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak bereganatzea planteatzen baita.

Uste da eskualdeak ez duela figura administratibo sendorik, eta, horregatik, ez dela hartzen eta tratatzen subjektutzat.² Horri lotuta, Urdai-baiko Biosfera Erreserbaren patronatuak gobernantza-eredu berri bat eta espazio irekiagoak behar dituela uste da, partaidetzarako dinamika gehiago izan behar lituzkeela, eta, akaso, Lankidetzeta Batzordea ere hobetu behar litzatekeela. Ikuspegi kritiko horretan, biosfera-erreserbari buruzko ikuspegia bitarikoa da, eragozpen nahiz aukera moduan ikusten baita.

Tailerretan parte hartu duten pertsonen heterogeneotasuna medio, eskualdeko azpiegitura-beharrei buruzko diskurtso antagonikoa dago. Azpiegitura batzuk desio dira, baina uste da eredu zentralizatua dutela (saneamendu-sarea) eta beste batzuei buruz ez datoz bat tokiko eragileak (sarbideak eta errepide-sarea): Okako eta Sollubeko tunelak. Era berean, ekipamenduak eta zerbitzuak batik bat biztanle gehien dituzten Bermeoko eta Gernika-Lumoko erdiguneetan daudela nabarmendu da, eta, ondorioz, landa-eremuko udalerrri eta kostaldeko udalerrri txikiak atzean geratzen direla, ageriko gabeziekin. Mugikortasunari lotutako alderdiei dagokienez, erresistentziaren eremuan Bidegorridxe Gernika-Lumon Ekimenak egiten duen lana azpimarratu da, bizikletaren erabilera eta bizikletentzako bideen sorrera bultzatzen dituen; eta alternatiben eremuan, Eskola Bideak egitasmoa nabarmendu da, Bermeon eta Gernika-Lumon bultzatuak izan direnak, ikasleen gurasoen elkarrean, udalen eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren arteko eredu kolaboratibo baten bidez.

Eredu turistikoari buruz ere ez dago diskurtso argirik, talka egiten duten ikuspegiak sortzen baititu. Oro har, tradizioa duen jarduera dela eskualdean uste da, eta harrera ona duela modu zabalean, sakabanatuan

2. Bizkaian, eskualdeak ez dira lurralde-eremu eta eremu administratibo ofizialak.

eta gizarte- eta natura-eremua errespetatuz egiten bada. Hala ere, ikusten da instituzioek eredu masiboa bultzatzen dutela, eta horren adibide argiak dira Gaztelugatxe eta Guggenheim Urdaibai museoaren proposamena, harekin batera azkar iristeko errepide berriak eraiki nahi baitira (Autzaganeko eta Sollubelko tunelak) eskualdera jende asko etor dadin. Bestalde, eskualdeak turismo-plan bat baduen arren, hura ez da erreferentziatzeko dokumentutzat ikusten, eta zalantzak eragiten dituzte benetan bultzatzen den sustapen- eta azpiegitura-ereduak eta turismoari harrera egiteko ereduak. Izan ere, eskualdeak, berez, eskaintza turistikoa oso benetakoa egiten du, tokikotik abiatutakoa eta oso dibertsifikatua, paisaiaren baliabideetan, tokiko ondarean eta euskal kulturaren oinarritzen dena.

Atal orokor honetan, nabarmentzekoa da publiko-komunitarioari eskaintzeko denbora gutxi egotearen pertzepzioa dagoela, gizarte-estres egoera orokortu bat medio.

Eskualde-ikuspegiarekin eta haren garapen-eredu integralarekin lotuta, honako hauek identifikatu dira alternatibatzat: Bizisare elkar-tea, Busturialdearen garapen iraunkorra sustatzen duena; Urdaibaietz plataforma, Urdaibaiko natura- eta kultura-ondarea zaintzen dituena; eta Urdaibai arte- eta sorkuntza-foroa, sorkuntzatik, berrikuntzatik, tokikotik eta euskaratik abiatuta eskualdearen garapen orekatua proposatzen duena.

Ikuspegi orokor horren ostean, arazoak eta erronkak azalduko dira jarraian, bai eta gizarte-mugimenduen gogoetetan jatorria duten erresistentzia eta alternatibak ere, ikerketa-proiekturako proposatutako analisirako lau gai-lerroak ardatz hartuta.

■ Ingurumenaren iraunkortasuna

Urdaibaiko ekosistemak asko degradatu dira xx. mendean. Alde batetik, naturako lurzorua galdu egin da, erabiltzeko okupatu delako nahiz etxebizitzak, industrialdeak eta azpiegiturak eraiki direlako. Basoko monolaborantza-jarduerara bideratutako esplotazio-eremuetan —ezin da hobeto esan— lurzorua bizi duen kalitate-galera eta higadura batu behar zaizkio egoera horri, orokorra baita. Eta ingurumen-baldintzen narriadura hori are gehiago okertu du akuiferoen kutsadurak (Gernikakoa da adibideetako bat); hala, defizit hidrikoa du Urdaibaik, bai emari ekologikoak mantentzeko, bai gizakien kontsumorako ura hornitzeko (Arana, 2019)

Lurraldearen okupazio eta asaldura hori gelditzea lortu zen hein batean aurreko mendeko 70eko eta 80ko hamarkadetan, tokiko talde

ekologisten esku-hartzeagatik (Zain Dezagun Urdaibai, 2019), baina gaur egun ere badago joera hori. Autoentzako abiadura handiko bide berriak, eskualdeko industrialde bat egiteko proiektua eta kultur ekipamendu handi bat egiteko proposamena dira horren adibide: Urdaibai-ko Guggenheim.

Horregatik, eragileek nabarmendu dute Urdaibairen erronka uraren eta lurzoruaren erabilera iraunkorrari alternatiba bat aurkitzea dela, eskualdeko eta tokiko ikuspegi batetik abiatuta. Horretarako, eskualdeko erakunde publikoen aldeko apustua egin behar dela uste dute, eta tokiko eragileen protagonismoa sustatu behar dela. Alde horretatik, tokiko taldeen esanetan, eukaliptoaren laborantza industrialde egiteko basoak masiboki erosteko aukera ixtea eta Busturialdeko Ur Partzuergo defendatzea dira premiazko lehentasuna duten ekintzak.

Natur lurzoruak eta haren titulartasunak kezka handia eragiten dute, basoen erabilera intentsiboen eraginez; era berean, kezka handia eragiten du Urdaibaiko Biosfera Erreserbako urak ere, zeinak mugetan Oka ibaiaren arroarekin bat egiten duen. Uraren kasuan, kezka hirukoitza da. Alde batetik, ur-defizita dago agorte- edo lehorte-sasoietan, baliabide horren plangintza eta kudeaketa txarregatik eta akuiferoen eta ibaien kutsaduragatik. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko gatazka instituzional historiko baten eraginez, hondakin-uren arazketak —herriko urenak nahiz industria-urenak— zenbait hamarkadarako atzerapena bizi du. Aurreko arrazoiei lotuta, Busturialdeko Ur Partzuergo Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan txertatzea proposatu da, eta erabakiak eta kudeaketa eskualdean bertan mantentzearen aldekoak direnek ez dute bat egiten konponbide horrekin. Goazen pixkanaka.

Ura bizitza da. Eta bizitza da zentzu zabalean; izan ere, ekosistemei eta natur eta giza bizitzei eusten die, eta, horrez gain, nekazaritza- eta industria-jarduerak garatzeko aukera ematen du, bai eta aisialdi-uneez nahiz artearekin eta espiritualtasunarekin lotutako alderdi transzendentalegoez eta inspiratzaileagoez gozatzeko aukera ere. Urdaibain, emari ekologikoak eta edateko ura bermatzeko arazoak daude, eta instituzioek hornidura-plan bat diseinatu dute. Ondorioa izan daiteke ura Ebroko arrotik Okakora joanaraztea (Zadorrako sistema). Plan hori betetzeak milioi askoko inbertsioa eskatzen du, eta eskualdeko biztanleei, nekazari- eta enpresei eragingo lieke fakturak.

Bestetik, Urdaibaiko Saneamendu Planak —gaur egun ari dira gauzatzen— zentralizatutako uren arazketa-sistema handi baten ezarpen-eskema berbera du. Dilatazio eta kostu handikoa ari da iza-

ten haren eraikuntza, eta operazio- edo ustiapen-kostuak ere ez dira txikiagoak izango; izan ere, hondakin-ur guztiak, ponpaketa bidez, Lamiarango (Bermeo) planta nagusira bideratu behar dira, eta ondoren, urpeko hustubide baten bidez, Kantauri itsasora isuri.

Ikusita baliabide hidrikorik ez egoteagatik «garapen» urbanistiko berriak geratzen ari direla —zehazki esanda, Hiri Antolamenduaren Plan Orokor berririk ez onartzea—, eta ikusita Muxikan jarri beharreko eskualdeko jarduera ekonomikoen parkea egiteko aukerarik ez dagoela, eta horri saneamendurako azpiegitura berriak eragingo lituzkeen ustiapen-kostuak gehitu beharko litzazkiokeela, Busturialdeko Ur Partzuergoko presidentetzak erakunde hori Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan txertatzea proposatu du, udal batzuen babesarekin. Erakunde hori Busturialdeko Ur Partzuergoaren bideragarritasuna aztertzen ari da, eta begi onez ikusten du aukera. Euskal administrazioaren nahia da Bizkaiko udalerrri guztiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan txertatzea.

Ur-kudeaketaren kontrola eta erabakiak eskualdetik kanpoko agente batengana desbideratzeko aukeraren aurrean, Guk Gure Ure! plataforma sortu dute. Busturialdeko Ur Partzuergoa mantentzea eta zaintzea proposatzen du, bai eta uraren tokiko kudeaketa iraunkorra egitea ere, langile propioekin. 2018an egin zituen lehen mobilizazioak Guk Gure Ure! plataformak; hain zuzen, elkarretaratze bat egin zuen Gernika-Lumoko Merkurio iturri enblematikoan; 2019an informazio-jardunaldiak egin dituzte eskualdean.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak Busturialdeko Ur Partzuergoa bereganatzea eta azken hori desagertzea kezka handiz ikusten du aldeetako batek,³ erabakigunea Bilbora eramango delako eta horrek langileengan ere eraginak izango dituelako. Era berean, aipatzen den beste kontuetako bat da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, udalaz gäindiko erakunde publiko bat izan beharrean, enpresa pribatu gisa aritzen dela Latinoamerikan (Argentinan; lehen Uruguain). Integrazioaren aldekoek, berriz, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aurrekonturako eta kudeaketarako kaudimen gehiago duela esaten dute, eta, horri esker, posible izango dela faktura mantentzea hornidura- eta saneamendu-azpiegiturak martxan jarrita ere.

Tailerretan parte hartu dutenek basoetako pinuaren eta eukaliptoaren monolaborantzaren arazoa ere aipatu dute. Hain zuzen, eskualdean hedatzen joan den joera da, eta Australiako jatorria duen espezieia

3. 2019ko martxoan, Ur Publikoa! plataformaren aurkezpen publikoa egin zen Bizkaian. Besteak beste, uraren tokiko kudeaketa mantentzea defendatzen du, eta, ondorioz, Busturialdeko Ur Partzuergoa mantentzea.

ugaritu egin da. Alde batetik, banda gorriaren eta marroiaren gaixotasunak *Pinus radiata* (intsinis pinua) suntsitzen ari dira —aurrez, beste izurrite eta gaitz batzuek suntsitu zituzten pinuak, esate baterako, pinu-beldarrak eta *Fusarium* onddoak—, eta pinuen ordezkatzeko masiboa paisaiaren «eukalitzazio-prozesu bat» ari da eragiten. Gaur egun, intsinis pinuaren milaka hektarea ari dira botatzen modu masiboan, kalitatea galdu aurretik, onddoak pinuak gaixotzen eta haien heriotza eragiten ari baitira. Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 2018an, intsinis pinuen %33 kaltetuta zeuden jada Euskal Herrian. Urdaibain ere eragina oso agerikoa da.

Landa-eremuko biztanleen txeragabetasunak eta banda marroiak pinuen baso-masetan eragiten duen egoera larriak lagunduta, egurra mozten eta saltzen duten enpresa errematatzailak eta bitartekariak lur-gainak nahiz lurrak eskuratzen ari dira. Jabetzaren metaketa horren ondorioz, kanpoko beste espezie bat masiboki ari dira landatzen, monolaborantza gisa: eukalipto. Kanpoko espezie hori 12-15 urtera moztu ohi da; beraz, bikoiztu edo hirukoiztu egiten da intentsifikazioa baliabideen erauzketan (intsinis pinua 25-35 urtera mozten da) eta baso-antolamendurik ezak eta makinaria astunaren erabilerak eragindako kalteak ere handitu egiten dira. Basoko lan horiek batik bat migratzaileek egiten dituzte, gutxi espezializatutako langileek, eta lan-erritmo azkarrak dituzte. Horrek kontratazioei, lan-arriskuei (2019ko lehen hiruhilekoan, bi pertsona hil dira Bizkaian, eta beste zenbait zauritu) eta pertsonen esplotazioari lotutako ondorioak ditu.

Testuinguru horretan, tokiko komunikabideek ingurumenaren eta ingurumenaren iraunkortasunaren aldeko diskurtsorik ez dutela egiten ere nabarmendu dute eragile sozialek. Hala, ez zaio laguntzen mobilizazio masiboak aktibatzeke aukerari; beraz, mugimendu naturalistaren eta ekologistaren sarea antolatzeke erronka detektatu da. Ingurumenaren aldeko erakundeek aitortzen dute zailtasunak dituztela Urdaibaiko eskualde osoan modu aktiboan eragiteko eta eskualdean jasaten ari diren edo bidean datozen erasoei aurre egiteko masa iraunkor eta alternatiboak aktibatzeke. Bere garaian, Busturialdean Lan eta Bizi plataforma sortu zen —jada ez da existitzen—, eta orain Urdaibaietzek jarraitzen du. Tokiko erakundeek eta pertsonak osatutako talde bat da, eta Urdabaiko Guggenheim museoaren proiektuari aurre egiteko sortu zen. Hedapenaren eta eragin sozialari lotutako alderdietara itzuliz, tokiko zenbait taldek egiten dute Urdaibairen balioen eta egoeraren hedapena. Hala, zaindudezagunurdaibai.org eta urdaibai.org webguneak aipatuko ditugu komunikazioari eta informazioari lotutako alternatibatzat.

Atal hau amaitzeko, klima-aldaketaren arazo globala aipatu behar dugu. Dimentsio eta irismen handia du eskualdean ere, eta eragin argiak eta zuzenak ditu arlo hauetan: uraren eskuragarritasunean, ekosistemen aldaketetan, uholdeetarako eta suteetarako arriskuan eta kostaldeko herrietan denboraleek eragindako kalteetan. Hala ere, aipamen txikiagoa izan du tailerretan, nahiz eta gazteak dagoeneko ari diren mobilizatzen espazio publikoetan eta ikastetxeetan.

■ Lurraren eskuragarritasuna

Atal honetan, lurra eskuratzea eragozten duten zenbait prozesu daudela nabarmendu behar dugu. Hain zuzen, arrazoi historikoengatik, lurrek komunalak izateari utzi zioten eskualdean. XIX. mendean, gerra ugari astindu zuten euskal lurraldea, eta horren ostean, Administrazioak lur komunalak desegiteko bidea eman zuen, jabetza pribatuaren mesedetan (desamortizazioak). Udalek egindako lur komunalen salmentek indar handia izan zuten eskualdean, eta gaur egun, eskualdearen hiru laurdenak jabetza pribatukoak dira. Prozesu hori pixka bat lehengoratu da, Bizkaiko Foru Aldundiak lurrak eskuratu dituelako.

Landa-eremuan, lehen sektoreak bizi duen gainbehera aipatu dute eragileek, batik bat nekazaritzak eta abeltzaintzak bizi dutena. Europako Nekazaritza Politika Bateratuak (NPB) bizkortu egin du prozesu hori, jarduera nekazaritza-ustiategi handietan metatzea sustatzen baitu. Nekazaritza-unitateen galerari baso-azaleraren zabalkundearekin egin zaio aurre, hain zuzen, intsinis pinuaren —*Pinus radiata* edo Monterreyko pinua— eta eukaliptoaren monolaborantza intentsiboan espezializatuz. Bestetik, garapen urbanistikoa esan izan zaienek eta txaleten «planta-zioek» —etxebizitza indibidualak— indar handiko bolada izan zuten 1993 eta 2008 urteen artean, lurzoruen okupazioa eta eskaera eragin dute, eta horrek lurzoruaren prezioa garestitzea ekarri du. Horrek guztiak lurrak eskuratzeko zailtasuna dakar, bai haien natur kontserbaziorako, bai nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jarduera alternatiboak hasteko eta zabaltzeko ere. Hiriaren edo bide-azpiegituren ondoko lurren eskaera handia dago, eta horregatik, merkatuko prezioak tokiko biztanle gehienek aukeretatik kanpo daude.

Biztanleen dinamikek erakusten dute landa-eremuetatik aldentzen ari direla, eremu horiek uzten ari direla —bai fisikoki, bai baserrien eta mendien kudeaketa-errutinari dagokionean ere—, eta testuinguru horretan, basogintza-sektoreko enpresa handiak lurrak erosten hasi dira. Euskal Herrikoak nahiz nazioartekoak dira enpresa horiek; adibidez,

Portugalgo egur-enpresak ari dira lurak erosten Urdaibain. Isilpean egiten den prozesu oso zabal bat da, era berean, oso ikusgarria. Izan ere, pinudien azalera handietan ari dira zuhaitzak masiboki botatzen gaur egun, bai eta landa-ondareak likidatzen ere. Hori guztia eukaliptoaren plantazio handi eta intentsiboak egin ahal izateko lurak erosteko aukera ari da ematen. Hain zuzen, eukalipto horiek Bizkaian existitzen ez den eraldaketa-industriara daude bideratuta.

Jabetzak enpresa handien esku geratzeko prozesu hori indarra hartzen ari da gure ikerketa egiten ari garen unean, eta hala azaldu dute tailerretan ere. Izan ere, prezioen etengabeko gainbeheraren eraginez, espezie exotikoen (intsinis pinua eta eukalipto) monolaborantzian oinarritutako basogintza-eredua jasaten ari zen krisiari beste krisi bat batu zaio: onddoek eragindako gaitzena, intsinis pinuaren azalera zabalak hiltzen ari dena.

Salbuespen- eta larritasun-egoera hori ikusita, zenbait erresistentzia-egitasmok, hala nola Kolore Guztietako Basoak izenekoak, jabetza publikoko mendiak baso autoktonoak birsortzera bideratzea defendatzen dute, eta, horrez gain, mendian jabetzak dituzten pertsonengana hurbiltzeko ahalegina ari dira egiten, espezie autoktonoetan oinarritutako basogintzako kudeaketa-eredu berriei ekin diezaieten. Lehen proposamenari dagokionez, nahiz eta Bizkaiko Foru Aldundiak ez duen jabetza publikoko mendiak baso autoktonoak birsortzeari buruzko aldeko iritzirik eman, mendiaren kudeaketa diputazioaren esku zuten udal batzuek berreskuratu egin dute lagapen hori, eta etapa berri bati ekingo diote, baso-espezie autoktonoetan oinarritutako eredu baten bidez. Kolore Guztietako Basoak egitasmoak naturatik gertu dauden baso produktiboen eredu alternatiboa proposatu die, Europako zenbait herrialdetan dagoeneko garatu dutena. Urdaibaiko herrietan egindako zenbait aurkezpenetan erakutsi da proposamen hori, eta balizko alternatibei buruzko eztabaida bat ere egin zen 2018ko abenduaren leian, Astran, foro ireki batean.

Bestalde, biodibertsitatea zaintzeko eta kontserbazio-basoen azalera handitzeko formula alternatiboen bila ari diren egitasmoek bi hamarkada daramatzate lanean, intsinis pinuaren eta eukaliptoaren baso-monolaborantza masak baso autoktono bilakatzeko lurak eskuratzeko moduak bilatzeko. Aipagarria da Lurgaia Fundazioak (www.lurgaia.org) Urdaibaiko Biosfera Erreserban egiten duen lana, lurraldearen kustiariaren formula erabiliz, zuhaitz autoktonoen orban zabalak ari baita sortzen. Oso urrun joan gabe, ikusgarriak dira Amunategi (Busturia) ibaiaren arroan, 30 hektarea, eta Undabaso (Muxika)

mendian, 60 hektarea, izandako emaitzak. Lurraldearen kustodioaren formularen arabera, jabe partikular batek edo Udalak lurraren erabilerara lagatzen dio GKE bati, eta hura arduratzen da natura birsortzeaz eta zaintzeaz adostutako epean. Undabasoan, kudeaketa-tresna hori erabiltzeaz gain, diru-bilketa publikora edo *crowdfundingera* ere jo zen, eta «Gure basoak. Gure etorkizuna» kanpaina arrakastatsua- ren ostean, 31 hektareako lursaila eskuratu ahal izan zen. Helburua da 110 hektareako hariztia sortzea Undabasoan eremuan. Kolore Guzti- tako Basoak plataformako kidea da Lurgaiak Fundazioa.

Basoetatik sukalde eta jangela kolektiboetara joaten bagara, urru- neko merkatuek eta lurraldeek hornitzen duten *catering* industrialaren ereduaren aurrean, Janguriek izena du lurrari lotutako beste proiektu alternatibo batek. Urdaibaiko ikasleen guraso-elkarteek (IGE) susta- tzen dute, ikastetxeen eta udalen laguntzarekin, eta kasu batzuetan, Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin, hezkuntzako eskuduna. Kudeake- ta elkarrekin egiteko eredu horretan, jangeletan tokiko elikagaiak, sasoikoak eta ekologikoak erabiltzearen aldeko ahalegina egiteaz gain, nutrizio-hezkuntza egoki bat sustatzen da, biodibertsitatea eta tokiko ingurumena zaintzen dira, eta arlo sozioekonomikoan, gazteak eta emakumeak ere lehen sektorean txertatzeko saiakera egiten da. Base- rrietako baratzeak handitzeko eta langabeei eta gazteei jarduerari ekin ahal izateko lurrak eskaintzeko premia dagoenez, udalekin hitz egiten ari dira, beren lurrak utz ditzaten edo bitartekari-lanak egin ditzaten lagapen- edo alokairu-akordioak gauzatzeko abantailazko baldintzetan. Gaur egun, jada bi ikastetxe egiten dute lan eredu horrekin (Allende Salazar eskola publikoak eta Seber Altube ikastolak [Gernika-Lumo]), eta beste batzuk pixkanaka hasi dira tokiko produktuak txertatzen. Edo- nola ere, nabarmentzekoa da eskualdean dauden 17 ikastetxeak direla Janguriek plataformako kide.

Prozesu kolektibo handizale eta zabal horren aurrean, ekoizleak ere antolatzen ari dira, eta, horretarako, Jantokikoa izenarekin elkartu dira, Jangurieren⁴ bueltan sortzen ari den dinamikari eta eskaerari laguntze- ko. Bizisare, berriz, baliabide teknikoak eta juridikoak nahiz logistika ari da eskaintzen —partekatutako biltegi bat—, egitasmoa ondo gara-

4. Nabarmentzekoa da kooperatibek Urdaibaiko lehen sektorean duten presen- tzia ere, landa-eremuan nahiz arrantzan, nahiz eta kooperatiba-mugimendua sendoagoa izan industria-sektorean. Halaber, mugimendu hori oso ezagu- na da hezkuntzan, ikastolen munduan hain zuzen (ikastetxe horiek fran- kismoan sortu ziren, erresistentzia kulturalerako eta euskara defendatzeko hizkuntza propio gisa eta komunikazio-hizkuntza gisa).

tzeko eskualde osoan. Lurgozo tokiko kontsumo-taldeak ere babesten du Jangurie egitasmoa, gizarte-ekintzaren eremutik. Azkenik, EHNE sindikatuak eredu horren aldeko apustu argia egiten du, bai eta familia-nekazaritza egiten duten nekazarien ereduaren eta egitasmoen alde ere, eta Via Campesinako kide da.

Lehen sektoreari lotutako industriari dagokionez, badaude nekazaritza-produktuak eraldatzera dedikatzen diren esperientzia kooperatibo aipagarriak. Bizkaigane (Errigoiti) kooperatiba eta beste zentro partikular eta enpresa batzuk dira horren adibide, batik bat gazta eta txakolina egiten dutenak. Eskualdeko industriarik esanguratsuena arrain-kontserbena izan da, eta oraindik ere jarraitzen du jarduera horrek, nahiz eta enpresa batzuk itxi egin diren eta beste batzuek eskulan merkeagoko herrialdeetara eraman dituzten ekoizpen-zentroak eta ondorioz langileak murriztu dituzten —batik bat emakumeak—. Alabaina, orain, lurreko produktuak ari dira gorakada handiagoa izaten. Era askotara ekoizten eta merkaturatzen dituzte. Tokiko produktuak ekoizpen propio eta zuzenetik bideratzen dituztenen artean, Ortutik Ahora da aipatu beharrekoetako bat, eskala txikiko *catering* agroekologikoa eskaintzen duena.

Ildo orokorreari erreparatuz gero, eskualdeak jarduera ekonomikoa eta lanpostuak galdu ditu (pertsonek aktiboen %70ek eskualdetik kanpo lan egiten dute), langabeziak iraun egiten du, eta kontratuak prekarioak dira baso-kudeaketaren, arrain-kontserben eta ostalaritzaren sektoreetan. Badaude dinamikoak diren eta zabaltzen ari diren industria gutxi batzuk, adibidez, Maier industria-kooperatiba. Urdaibain du egoitza nagusia, eta zenbait ekoizpen-zentro munduaren luze-zabalean. Era berean, aipagarria da gas likidoa lurruntzen duen Gaviota ere (ENAGAS, S. A.), haren izaeragatik. Munduko zenbait hobotatik datorren gas naturala biltegitratzen, tratatzen eta banatzen du Euskal Herrian. Aipatu den bezala, oinarri soziala duten egitasmoak (adibidez, Jangurie) eta salmenta zuzenaren aldeko ahalegina egiten duten base-eritarraren egitasmoak alternatibatzat hartu dira lehen sektorean, bai eta egitasmo pribatutik hasi diren eta eredu ohikoago bati jarraitzen diotenak ere (adibidez, agroelikagai industriak).

■ Genero-desberdintasuna eta bidegabekeria sozialak

Euskal gizartearen bereizgarrietako bat haren izaera tradizional eta kontserbadorea izan da, landa-eremuan are gehiago —baita orain ere— igarri izan dena. Horri Estatu faxista baten mendeko berrogei urteko diktadura gehitu behar zaio. Erregimen totalitarioa eta gizo-

nen eta emakumeen rolen bereizketa argia egiten zuten hezkuntza eta bizimodua sustatu zituen hark, eta erreproduzio-zereginetara eta etxeko zaintzetara baztertu zituen emakumeak. Trantsizio demokratikoa esan izan zaiona, aurreko mendeko 70eko hamarkadaren erdialdean, eskema ideologiko horiek zalantzan jartzen hasi zen. Neskatilentzako eta emakumeentzako eskubide- eta aukera-berdintasunaren borroka modu oso aktiboan bizi eta ikusten da eskualdean; izan ere, patriarkatua zirrikitu askotatik mugitzen da erabat agerikoa ez denean, eta indarkeria matxista eta kapitalista sarri azaleratzen da, kolpe ikaragarriak emanez.

Busturialdea-Urdaibai eskualdeak ere bizi ditu emakumeek euskal testuinguruan bizi dituzten —edo hobeto esanda, jasaten dituzten— arazoak (Goikoetxea et al., 2019). Bazterketa eta biolentzia arazo handiak dira, eta dagoeneko gizartearen erronkatzat hartu dira. Aukera-berdintasuna, rol ezberdinak, soldata-arrakala, kristalezko sabaiak, ardura-postu jakin batzuen ukazioa..., eta beste hainbat dira gainditu nahi diren errealitateak.

Poliki-poliki aldatzen den testuinguru horri, beste zenbait dinamika batzen zaizkio eskualdean, eta horiek gogorrago astintzen dituzte emakumeak. Adineko biztanleen kopurua handitzen ari da, eta horiek batik bat emakumeek zaintzen dituzte; zerbitzuen sektore eta sektore produktibo batzuk oso feminizatuta daude, esate baterako, garbiketarena eta arrain-kontserben industriarena; pobrezia handitu egin da, eta tokiko eragileen ustez, ezkutatu egiten da; kalitatezko enplegurik ezak eta etxe bat izateko aukera faltak eraginda, gazteek eskualdetik kanpo alde egiten dute; migratzaileen kolektiboek inklusio-arazoak dituzte, eta, aldi berean, okerren ordaintzen diren lanpostuetan aritu behar izaten dute edo ez dute lan-kontraturik izaten; eta abar. Arazo horiek emakumeei gehiago eragiten diete, bizi-esparru guztietan, eta tailerretan parte hartu duten gazteek drogen kontsumo handiarekin lotzen dituzte.

Alabaina, emakumeen aurkako biolentzia matxista da arazorik gogorrena, eta era askotara adierazten da. Sexu-erasoak dira adierazteko modu horietako bat, fenomeno latza eta ugaritzen ari dena, festei eta jende askoko ekitaldi handiei oso lotuta. Urrunegi joan gabe, 2019ko martxoan, sexu-eraso baten saiakera izan zen Bermeon, eta kolektibo sozial ugarik nahiz Bermeoko Udaleko ordezkariak publikoki salatu zuten gertatutakoa. Egoera errepikatu egin zen 2019ko uztaillean, Madalenak jaietan, bi emakumek gizon berberak Ibarrangelun egindako eraso eta abusu sexual bat salatu baitzuten. Gertakari

horren aurrean, gertatutakoa gaitzesteko adierazpen batekin eta bi emakumei elkartasuna adierazteko deialdi batekin erantzun zuen Udalak.

Errealitate gogor horren eta emakumeen aurkako testuinguru horren aurrean, eskualdean duela hamarkada batzuetatik martxan dauden emakume-elkarteei, hala nola Erroxape (Bermeo) eta Emakide (Gernika-Lumo) elkarteei, edo berriagoa den Urdaibai eremuko Kukubedarra elkarteari, beste zenbait kolektibo feminista batu zazkie: Norez, Sorginorratz (Bermeo) eta Asunek dira adibideetako batzuk, eta Bizkaian, Euskal Herrian eta Europan bizitzen ari diren dinamikak mundu osokoekin konektatzen dituzte. Emakumeen elkarte horiek⁵ sare gisa ari dira elkartzten, tokian bertan edo eremu zabalagoan, eta emakumeen aurkako biolentzia-kasuak salatzeke ekintzak antolatzen dituzte, baita data seinalatuei lotutako ekintzak ere: Emakumeen Nazioarteko Eguna, lanuzte feminista (2018) eta 2019ko martxoaren 8ko greba feminista zabala dira adibideetako batzuk. Aldarrikapen- eta protesta-ildo horri eutsiz nahiz jendea gogaituta dagoela adierazteko, azaroaren 25ean emakumeen aurkako biolentzia salatzen da, eta urtearen barruan gertatzen diren indarkeria-gertaerak nahiz sexu-abusu eta sexu-erasoak ere salatzen dira.

Gernika-Lumoko kasuan, talde feministek irmo salatu zuten udalean berdintasun-arloko aholkularitza- eta arreta-zerbitzua geldirik egon izana urtebete baino gehiagoan, 2017 eta 2018 urteen artean.

Era berean, aipagarriak dira kolektibo babesgabeen arreta emateko dauden egitasmo solidarioak. Nahiz eta tradizioz familia-eremuan edo Caritas, Gurutze Gorria, elikagaien bankua eta antzeko erakundeen bidez eman zaien arreta, gaur egun badituzte babes sozialerako tokiko sareak ere, esate baterako, Bermeoko Danok Batera. Kolektibo babesgabe horien egoera larritu egiten da emakume eta adineko izatearen faktoreak batuz gero. Hala, alargunek eta pentsionistek gizarte-larrialdi

5. Bermeoko Norez eta Sorginorratz (lehen Sareginek) elkarteak, Gernikako Asunek elkarteak, emakume migratzaileek eta haien kolektiboek (Ideasur, Besalde...) eta gazteen elkarteak (Egurre, Ezten, batzarrak, gazetxeak) sustatzen dituzte ekintza kolektibo eta dinamiko horiek guztiak, eta honako hauetan ere parte hartzen dute: emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-planetan, berdintasunerako batzorde eta kontseiluetan, ahalduntze-jardunaldietan eta autodefentsa-ikastaroetan eta beste hainbat jardunbidetan. Guztiek batera, elkarteen arragoa sortzen dute, eta tokiko eta eskualdeko sare feministak osatzen dituzte, eta horiek probintziakoekin, Euskal Herrikoekin eta nazioartekoekin ehuntzen dira.

egoera bizi dute, pobrezia-tasa handiak baitituzte, bai landa-eremuan, bai kostaldeko herrietan.⁶

Beste herrialde batzuetatik datozen migratzaileen eta errefuxiatuen kolektiboei erreparatzen badiegu, Bermeoko Besalde (Saharako herria babesteko taldea) nahiz sortu berriagoak diren Ongi Etorri Errefuxiatuak, Harrera eta antzeko mugimendu eta taldeak, eskualdekoak bakarrik ez diren arren, lur hartzeko pistak dira euskal lurraldeetan aukera berri baten bila dabiltzan pertsonentzat.

Atal hau amaitzeko, alderdi kualitatibotik nahiz kuantitatibotik duen garrantziagatik, intergarria da 2019ko martxoaren 8an sustatutako greba feminista nabarmentzea. 24 orduko jarduera-programa baten bidez, antolaketa-ariketa oso zabala eta heterogeneoa izan zen eskualdeko herri askotan, eta mobilizazio oso handiak egin ziren Busturialdea-Urdaibaiko herri nagusietan.

■ Kultur identitatea eta euskara

Busturialdea-Urdaibaiko eskualdeak ondare kultural baliotsua eta askotarikoa du. Hauek dira adibideetako batzuk: Santimamiñeko haizzuloko labar-pinturak eta Done Jakue bidea —biak dira UNESCOren munduko ondareak—, Gernikako arbola —euskal askatasunen sinbolo—, itsas erromeriak (adibidez Madalenakoa), Mundakako inauteriak, Marijesiak gabon-kantak eta euskara (euskal hizkuntza), eskualdeari aztarna sakona eta nortasun handia eragiten dizkiona. Adierazpen kultural ukigarri nahiz ukiezin horiei indar sortzaile oso bizia batu behar zaie. Izen handiko artistak eta beste artista anonimo ugari daude Urdaibain, eta kopurua biderkatu eta aberastu egiten da kontinente guztietako herrialdeetatik etorritako pertsonesi esker. Kultur paisaia askotariko, dinamiko eta tinkotuan adierazten dira horiek guztiak (Rementeria, 2015).

Diktadura frankistaren berrogei urteetan euskara debekatuta eta jazarria egon zen, eta garai horrek arrasto sakona utzi zuten gizartean. Francisco Franco diktadorearen erregimenak baimendu zituen dantzaren eta herri-kirolen adierazpen folklorikoak, baina errepresioak gogor egin zuen euskal hiztunen aurka. XX. mendeko 60ko hamarkadan, lehen ikastola klandestinoak ireki zituzten —euskara erabiltzen zuten

6. Busturialdean 1000 pertsonak baino gehiagok jasotzen dute diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) (%60 emakumeak eta %40 gizonak), eta onuradunen erdiak Bermeokoak dira (500 pertsona; %56 emakumeak, %44 gizonak). Lanbide (Eusko Jaurlaritzan), 2019ko abuztuko datuak.

eskolak —, eta erresistentziarako eta Espainiako diktadura-erregimenak inposatutako politikai aurre eginez euskal nortasuna argitara ateratzeko ekintzak izan ziren; gaur egun, aurrera jarraitzen dute, eta hiru zentro dituzte Bermeon eta Gernika-Lumon. Alabaina, berrogei urtean euskal erakundeek euskara erabiltzea eta euskara ikastea sustatu duten arren, zenbait arrazoi medio, haren ezagutza eta erabilera normalizatu lortzeko bide luzea falta da oraindik. Horregatik, eskualdean badaude euskara ikasteko eta erabiltzeko laguntza taldeak, hala nola elkarte txikiak eta finkatuz joan diren enpresak. Beste kasu batzuetan aliantzak daude gizarte zibilaren, euskara irakasten duten zentroyen (euskaltegiak) eta tokiko Administrazioaren artean. Hori da, esate baterako, Bermeoko eta Gernika-Lumoko Berbalagun laguntza taldeen kasua, udalek, udal ikastetxeek eta AEK fundazioak parte hartzen baitute. Puntu honi dagokionez, nabarmentzekoa da euskara ikasten ari direnei (euskaldunberri) ematen zaien aukera, Euskal Herrikoak izan nahiz beste herrialde edo herri batzuetatik etorritakoak izan. 2018an, jauzi kualitatibo bat eman zen Euskaraldia programaren sustapenarekin. Programa horren bidez, 11 egunetan euskaraz hitz egitea sustatu zen, eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ere babestu zuten egitasmoa Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) esparruan.

Euskararekin lotura estua duen diziplinetako bat bertsolariena edo poeta inprobisatzaileena da. Jarduera historikoa da Urdaibain, eta orain Astran du elkargunea, Lilibertso izenekoak. Bertsozaleak elkartzeko dinamika hori zenbait herritan eta eskualdeko ikastetxeetan dauden bertso-eskolekin osatzen da.

Astra aipatu denez (kultur sorkuntzarako gizarte-fabrika), interesgarria da aipatzea autokudeatutako espazio bat dela hura, eta arteekin eta kultur sorkuntzarekin lotutako espazio baten hasierako ideiatik harago doa. Ia mende batean arma-fabrika izan zen, eta garai historikoa hura gairatuz, Gernika-Lumoko Udalak birgaitu zuen, Eusko Jaurlaritzak sustatutako EAEko kultur sorkuntzarako fabriken sareko parte izateko. Alabaina, izaera propioa lortu du, funtzio poliedrikoa betetzen duelako eta gizarteari, kulturari, ingurumenari eta politikari lotutako askotariko proposamenak biltzen dituelako. Espazioak duen autokudeaketa-ereduarekin eta gizarte-antolaketarekin, era guztietako proposamen eta egitasmo ugari hartzen ditu. Astra Koordinadora aintzat hartzeko eta hedatzeko moduko eredia da, besteak beste, asanblea bidezko partaidetza-prozesuak dituelako, 0, 1, 2, 3 Km izenekoak, eta horrek aurrera egiteko aukera ematen diolako. Alabaina, batzuen ustez, Astran nahiz Bermeoko Kabidxe autokudeatutako espazioan erabilera

«partikularizatu» egiten da, eta beharrezkoa da espazio horien plural-tasanari buruzko gogoeta egitea eta gizarte osoari irekitzea.

Egitasmo-nahasketa hori ikusita, eta partekatutako kultur estrategiari ez dagoenez, tokiko sortzaileek eskualdeko ondareari eta kultur identitateari balio handiagoa ematearen hutsunea igartzen dute. Oro har, kultur politika eta kultura sustatzeko eredu pasiboa daudela uste dute, bai eta kulturaren kontsumo pasibo hori sustatzen eta finantzatzen dela eskuzabaltasunez ere. Análisi horri eutsiz, merkantilizatutako jaialdi-eredu bat dagoela uste da, Mundaka Festivaletik (Mundaka) Bay of Biscay Festivalera (Bermeo) joan dena. Kontsumo masiboko produktu horien aurrean, erresistentzia eta alternatiba gisa, Danona Donea aktibatu dute Mundakan, musikaren eta beste kultur adierazpide batzuetako artista artisauen topagunea. Gernikan, Lekuek jaialdia antolatzen dute, Iparragirre Rock, Trinkete Antitxoko, Astra eta autokudeatutako beste elkarte batzuek herriko tabernariekin batera sustatuta. Bermeon, kontzertuak eta jaialdiak antolatzen dituzte Kapilla zentroan, eta aipagarriak dira Nuntxaku autokudeatutako elkartearen musika-ekitaldiak. Herri txikiagoetan, berriz, jaietako batzordeez gain, kontzertu alternatiboak antolatzen dituzten kolektiboak daude, adibidez, hauek: Otsozulo gazteen zentroa (Busturia), Valtonycek (Belgikan errefuxiatuta dagoen Mallorcako rapeatzailea) parte hartu zuen kontzertu solidario bat antolatu zuena; eta Muxikako Atxeliye elkarteak, askotariko kultur programazioa antolatzen duena, tartean Saragiaren Hileta antzerki satirikoa, haren balio etnografikoagatik nabarmentzen dena. Aipamen berezia merezi du Herriari Emon Arnasa kultur elkarteak, Eako Poesia Egunak egitasmoaren antolatzaileak. Hamabost urtean, poesiaren olatuak zeharkatu dituzte, eta haren brisak euskal kulturako adierazpide askotara zabaldu dituzte.

Sorkuntzaren ikuspegi horretatik, eta zorionez eskualdean asko izanik adierazpide eta sorkuntza artistiko indibidual eta kolektiboak, ezin da esan kultur jarduera utzia dagoenik Urdaibain. Bertso-saioak, dantza tradizionalaren erakustaldiak (adibidez, Dantzari Eguna eta Euskal Jaia) nahiz formatu eta estilo berriko ekitaldiak egiten dira, adibidez, Jazzber, Halloween Metal Fest, Metal Jaialdia Astra, New Blood Weekend eta abar. Erakusketak eta artisten eta idazleen obren proiektzioak ere batu behar zaizkie horiei.

Beste plano kultural batean, eta migratzaileen taldeen inklusio soziokulturalerako dauden zailtasunen aurrean, eskualdeko kultur identitate ezberdinen erosotasunerako formulak aipatu behar dira, formatu zabaleko dinamikak dituztenak, besteak beste, hauek: Munduko Arro-

zak Gernikan, Gernika Gogoratuzek koordinatzen duena, eta Hamar Argazki. Hamar Salaketa kanpaina, Ideasur elkartearena.

Diktadura frankistaren jatorrira itzuliz, bigarren errepublikan hasi zen gerra zibilean, indar kolpista faxistek, bonbardaketa masibo baten bidez, Gernikako herri-eremua suntsitu zuten, eta Pablo Picassok *Guernica* margolanean irudikatu zuen gertatutakoa. Laurogei urte pasatu dira gertakari tamalgarri hartatik, eta gertatutakoaren eta haren ondorioen memoria berreskuratu, mantendu eta zabaldu nahi dira oraindik (aipamen berezia Gernikazarra historia elkarteari eta Gernika Batzordeari). Lobak eta Arkibai elkarteek ikuspegi sortzaileagoa proposatzen dute, etorkizunari begirakoa, eta Gernika 2037 egitasmoa jarri dute martxan. Lan kolektibo bat da, eta Gernika izan zenari eta gaur egun sentitzen denari buruzko multimedia-mapa baten bidez ematen da, kultur adierazpidetik eta 2037ra (bonbardaketaren mendeurrena) proiektatzen den ikuspegi positibo eta etorkizun-ikuspegi batetik abiatuta.

Ondare higiezinaren defentsa Urdaibaietzek egiten du. Bere garaian, Guggenheim Urdaibai museoa eraikitzearen aurka egin zuen, eta orain Larrinaga jauregitxoa (Mundaka) eta Frantziskotarren (Forua) konbentuaren ondoko eraikina babesteko ahaleginetan ari da. Bestelako ikerketa- eta hedapen-esparru batean, nabarmentzekoa da Agiri arkeologia-elkarteak egiten duen lana ere, jardunaldiak antolatzen baititu eta zenbait elementu babesten baititu, hala nola Surbituagako (Busturia) iruinarrria, Urdaibaiko Galtzagorriak elkartearen laguntzarekin.

Hasieran aipatu den bezala, lan honetan ezin da landu kirol-jarduera tradizionalai, federatutakoei nahiz informalei lotutako kultur identitate osoa, eskualdean adierazpide, talde eta jarduera ugari baitaude. Nabarmendu behar da Busturialdea-Urdaibai eskualdean era guztietako kirolak egiteko zaletasun oso handia dagoela, hau da, itsasoari nahiz mendiari lotutako kirolak egitekoa, kirola aire librean nahiz barruan egitekoa. Herri-kirolak (estropadak, harri-jasotzaileen saioak eta euskal pilota), surfa, nahiz emakumeen eskubaloiko eta saskibaloiko punta-puntako taldeak gotea da horren erakusle.

ONDORIOA

Busturialdea-Urdaibai eskualdeak «Gatazka egoeran dauden lurraldeak» ikerketan jorratutako alderdietan oso inplikaturik dagoen komunitate eta kolektibitate soziala du. Alabaina, aztertutako gai nagusi bakoitzean, alde handiak daude antolaketa- eta eragin-mailan; horregatik,

ikerketa honek eta bere emaitzek gaitasun kolektiboak bisualizatzeko, hedatzeko eta handitzeko aukerak erraztuko dituzte.

Hala, kultur jardueraren arloan, eta kontsumo pasiboan eta merkantilizatuan oinarritzen den kultur ereduaren aurrean, talde, egitasmo eta konponbide alternatibo ugari ikusten dira. Mundakako Danona Donea formatu alternatiboa da adibideetako bat; izan ere, tokiko Administrazioaren eta foru Administrazioaren babes eta finantzaketa zabala izan duen Mundaka Festivalen eskaintza merkantilizatuaren aurrean, proposamen berri, ireki eta doako bat egiten duten artisten topaketarako espazio bat sortu dute, trebetasun artistiko indibidual eta kolektiboetan oinarrituta, eta azpiegitura handien eta finantzaketaren laguntzarik gabe. Lekuek jaialdia da nabarmentzeko moduko beste eskaintzetako bat, autokudeatutako tokiko taldeen eta Gernika-Lumoko tabernarien egitasmoak elkartzen dituena, bai eta Nuntxaku elkarteak Bermeen sustatzen duen dinamika ere.

Aitzitik, tokiko ingurumen-elkarteak mugatu samar daudela ikusten da. Badirudi belaunaldien arteko erreleborik ezak eragindako zama eta nekea ari direla jasaten Zain Dezagun Urdaibai eta Gernikako Ekologia Tailerra talde historikoak. Horren ordez, hor dago Guk Gure Ure! elkarteak uraren tokiko kudeaketaren alde egiten duen eta gorantz datorren presazko ekintza ere; aldi berean, izaera zabalagoko erakundeak ere badaude, adibidez, Lurguia fundazioa eta Kolore Guztietako Basoak. Eukaliptizazioaren fenomenoak geratu nahi dute horiek, eta baso autoktonoak lehengoratzea eta ekosistema osasuntsuak izatea sustatzen dute. Klima-aldaketa eta antzeko gaiak aipatzen dira, baina ez dute egonezin sozial handirik eragiten.

Lurraren eskuragarritasuna da funtsezko kontuetako bat, batik bat orain, ikastetxeetako jangeletan tokikoak, sasoikoak eta ekologikoak diren produktuak kontsumitzea sustatzen duen eskualdeko Jangurie egitasmoa zabaltzen ari baita. Dagoeneko zenbait zentrok alde batera utzi dute *catering* industrial edo ohiko sukaldaritza, eta alternatiba gisa, gertukoa, osasungarria eta kalitate onekoa den sukaldaritza-eredu baten bueltan lan egiten dute. Oro har, nutrizioari lotutako alderdiez harago, hezkuntzarako baliabidetzat eta eskualdeko gizartea eta ekonomia suspertzeko baliabidetzat planteatzen da, bai eta ingurumena lehengoratzeke eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren garapen integrala lortzeko baliabidetzat ere.

Arlo ekonomikoan, aipagarria da ez dagoela ekonomia sozial eta solidarioari lotutako alternatiba askorik. Lurgozo izan daiteke adibideetako bat. Tokiko produktuen eta produktu ekologikoen kontsumo

talde bat da, eta 200 bazkide baino gehiago ditu. Ahal den heinean, eskualdeko edo inguruko baserritarrekin funtzionatzen du. Erakutsi den bezala, administrazioek arreta eta dirua batik bat «agertoki» diren espazioetan (adibidez, Gaztelugatxe) eta ikuskizun handietan (adibidez, Mundaka Festival) jartzen dute, eta laguntza gutxi ematen diete balio propioetan, barreiatutakoetan edo inspirazio soziala dutenetan errotutako tokiko turismo-alternatibei. Hala, ohartarazi da Administrazioak kulturaren kontsumo pasiboa sustatzen duela, eta proiektu handiak daudela. Urdaibaiko Guggenheim museoa da horietako bat, latentea, eta Busturialdea-Urdaibai eskualdeko kolektiboek errezelo handiz begiratzen diotena.

Genero-desberdintasunei eta eredu patriarkalari eskaini beharreko alternatiben arloan, militantzia eta ohiko ekintzak aparte utzita, martxoaren 8ko eta azaroaren 25eko mobilizazioak masiboak izan ohi dira eskualdean, eta ekintzak, alderdi kualitatiboan nahiz kuantitatiboan, zabaldu egin dira azken urteotan. Historiaren egutegian, markatu beharrekoak dira 2018ko lanuztea eta 2019ko martxoaren 8ko greba feminista. Dinamika horien sustatzaileen artean daude Asunek, Norez eta Sorginorratz. Emakume feministen elkarteak dira, eta sare kolaboratibo bat ari dira ehuntzen Busturialdea eskualderako. Alde horretatik, emakumeen estratu zabalek jasaten duten arazoa ikusita, tokiko eta Busturialdeko sare egonkorragoak eta beste kolektibo batzuentzat ere irekita daudenak sortzea da erronketako bat. Bestalde, sexu-erasoen eta indarkeria matxista eta kapitalistaren erasoak berehala aktibatzen dira, eta gaitzespena erakusteko, agerian jartzen dira publikoki.

Laburbilduz, kolektibitate eta ekintza ugari daude eskualdean, baina hein handi batean, ez dute elkar ezagutzen —egitismo ezberdinen arteko harremanik ez dago, interes espezifikoeetan zentratuegi egoteagatik—; beraz, ez dituzte ezagutzak eta dinamika komunak partekatzen —badaude salbuespenak, adibidez, mugimendu feminista eta Urdaibaitez—, eta ez da ahalduntze kolektiborako sinergiak batzeko aurrerapausorik ematen. Bestalde, ez dago diagnosi eta plan partekaturik eskualdean eta eskualdearentzat, eta horri besteak beste zubiak eta proiektu komunak eraikitzea erraztuko duen lidergo baten falta batu behar zaio. Alde horretatik, animo falta eta nekea igartzen dira. Proposamen berriek, adibidez, Bizisarek, begirada integratu hori bilatzen dute, Busturialdearen iraunkortasunarekin bat datozena. Gizartearen eta Administrazioaren artean partekatutako egitasmoak, berriz, gizarte zibilak sustatutakoak izan dira, eta egitismo

horiek herrietako tokiko eragileak txertatu dituzte. Hori da, esate baterako, Eskola Bideak egitasmoaren kasua, ikasleen guraso-elkartek (IGE) bultzatu baitzuten. Horiek dira, besteak beste, ikerketa honetan Busturialdea-Urdaibain detektatutako alternatiba arrakastatsu eta ahultasunetako batzuk, eta horrekin batera, aipagarria da gizartemugimenduek elkartzeko espazioak falta dituztela ere, hein batean Astrak (Gernika-Lumo) eta Kabidzek (Bermeo) betetzen duten arren hutsunea.

BIBLIOGRAFIA

ARANA EIGUREN, Xabier (2019): «Retos ambientales del territorio e instrumentos de educación ambiental para la transformación socio-cultural», in Jokin ALBERDI eta María OIANGUREN (koord.): *Narrativas de resistencia y solidaridad. V jornadas antimilitaristas y memoria histórica de Gernika en Astra*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratuz (Red Gernika Documentos, 19).

Artikulu horretan, Lurra planetako bizitza guztia mehatxatzen duten mehatxuak azaltzen dira. Tokiko ikuspegitik, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren jatorrira itzultzen da, haren ezaugarrietara, gaingintu nahi dituen zailtasunetara eta hein batean aurre egin zienetara. Era berean, alternatibak, ekintza kolektiboak eta aliantzak bilatzen jarraitzeko premia dagoela aipatzen du, partaidetzatik eta ingurumen-hezkuntzatik abiatuta, bizitzaren jasangarritasuna lortzeko.

BIZISARE (2016): *Bizisare. Busturialdeko Garapen Iraunkorrerako Elkartea*. Eskuragarri hemen: <https://ruralcat.gencat.cat/c/document_library/get_file?uuid=7a9e8112-387c-4efe-bc60-2ea5b198ffbba&groupId=20181>

Bizisare elkartearen helburuen aurkezpena. Busturialdea eskualdearen diagnosi bat ere txertatzen du.

DUBOIS, Alfonso (2019): «Capacidades y acción colectiva. Narrativas de desarrollo y justicia social para un tiempo de cambio», in Jokin ALBERDI eta María OIANGUREN (koord.): *Narrativas de resistencia y solidaridad. V jornadas antimilitaristas y memoria histórica de Gernika en Astra*, Gernika-Lumo, Gernika Gogoratuz (Red Gernika Documentos, 19).

Lan honetan, aldaketa sakoneko koiuntura historiko baten aurrean diskurtsokoherente batizateko beharakeraginda gauregun sortzen diren

gorabeherak jorratzen dira, kontuan hartuz justiziarekiko erreferentzia ere txertatu behar dela haren legitimitatearen oinarri gisa. Agerikoa dirudien arren, zehaztu behar da zenbait aldaketa-prozesu bizitzen ego-tea dela gaur egungo testuinguruaren ezaugarria, eta aldaketa-prozesu horiek bereziak direla duten helmenagatik eta sakontasunagatik. Aldaketa da erreferentzia berria.

GOIKOETXEA, Jule, et al. (2019): *La democracia patriarcal en la Comunidad Autónoma Vasca*.

Patriarkatuaren askotariko dimentsioen mekanismoak, egiturak eta erreproduzio-agentek kontzeptualizatzen eta aipatzen ditu, eta, zehatzago esanda, patriarkatua Euskal Autonomi Erkidegoan nola erreproduzitzen den aztertzen du, zein diren haren ezaugarriak eta nolako eraginak dituen emakumeen ongizatean, ahalduntzean eta demokratizazioan. Gaiari zenbait hurbilketa egin izan zaizkion arren, aurrez ez zegoen dimentsio patriarkalak eta haren ondorioak modu bateratuan azertu zituen lanik, eta horixe da ikerketaren berrikuntza nagusia.

REMENTERIA ARRUZA, Daniel (2015): *Paisajes culturales de Busturialdea: procesos, tensiones y derivas*, Bilbao, Servicio de Patrimonio Cultural-Diputación Foral de Bizkaia (KOBIE. Serie Anejo, 14).

Busturialdeko paisaien azterketa, antropologiaren ikuspegitik, kontuan hartuz paisaiak inguruaren, gizakien ekintza modelatzailearen eta dituen errepresentazio-prozesuen interakzio historikoaren emaitza diren prozesu kultural dinamikoak direla. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren figuraren esanetara eskualde honetan gauzatzen den garapen iraunkorrerako proiektuaren barruan, paisaia kulturalaren kontzeptua funtsezkoa da; izan ere, komunitate bat ingurura doitzearen prozesu historikoaren gako kulturaletara garamatza, eta prozesu hori egokia izan den adierazteko funtzioa betetzen du.

ZAIN DEZAGUN URDAIBAI (2019): *Breve aproximación a la historia del movimiento ecologista y vecinal en Busturialdea*. Eskuragarri hemen: <<http://zaindezagunurdaibai.blogspot.com>>.

Busturialdeko talde ekologisten jatorria kontatzen du, Euskal Herrian sortutako nuklearren aurkako mugimenduari lotuta. Aurreko mendeko 70eko hamarkadan, zentral nuklearrak eraikitzearen aurkako mobilizazioak izan ziren, eta Busturialdea-Urdaibain ere izan zuen eragina. Hori bezain garrantzitsua izan zen eskualdea babeste-

KASU-IKERKETA: URDAIBAI (EUSKAL HERRIA)

ko proposamenaren bueltan sortu zen gizarte-mugimendua; izan ere, mugimendu kultural sendoa sortu zen. Testuak 70eko hamarkadatik gaur egunera arte Urdaibaiko paisaiaren parte izan diren erakundeen eta ekintzen amalgama kontatzen du.

1. ERANSKINA.

BUSTURIALDEA-URDAIBAICO GIZARTE-EKOSISTEMA: GIZARTE ZIBILEKO ELKARTEAK

1. INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA

ADES, espeleologia-elkartea.

Aranzadi, zientzia-elkartea.

Arkibai, Urdaibaiko arkitektoen elkarte.

Bidegorridxe Gernika-Lumon Ekimena, bizikletaren aldeko
gizarte-plataforma.

Chernobil, elkarte.

Eguzki, talde ekologista.

Errigoiti-Arrieta Garbi, bizilagunen elkarte.

Gernikako Ekologia Tailerra.

Herri Babesa, gizarte-babeserako taldea (Bermeo).

IGE, ikasleen guraso-elkartea.

Izaro-sub, urpekarien elkarte (Bermeo).

Kolore Guztietako Basoak, baso autoktonoen aldeko
gizarte-plataforma.

Lurgaia, fundazioa.

Lurgozo, tokiko kontsumo-taldea.

UNESCO Etxea Euskal Herria, UNESCOri atxikitako elkarte.

Urdaibaietz, ingurumenari eta kulturari lotutako herri-plataforma.

Zain Dezagun Urdaibai.

2. LURRAREN ESKURAGARRITASUNA

Auzolan Busturialdea.

Basoak, fundazioa.

Bizisare, Busturialdeko garapen iraunkorrerako elkarte.

EHNE, nekazarien sindikatua.

ENBA, nekazarien sindikatua.

Jantokikoa, baserritarren elkarte.

3. GENERO-DESBERDINTASUNAK

Andra Mari parrokia-biltzarra (Gernika-Lumo).

Asunek, erakunde feminista.

Besalde, Sahararekiko elkartasun-taldea.

Cáritas.

Diapalante Sunu Biir, senegaldarren elkarte (Bermeo).

Egurre, gazteen asanblada.

Erretiratuen eta hirugarren adinekoen elkarteak.

Eutsi Gogor Danok Batera, behar bereziak dituzten adingabeei laguntzeko elkarte (Bermeo).

Emakide, emakumeen elkarte (Gernika-Lumo).

Erroxape, emakumeen elkarte (Bermeo).

Gernikatik Mundura, herrien arteko lankidetzarako elkarte.

Gurutze Gorria.

Ideasur, migratzaileen elkarte.

Kate Sarea, behartsuei laguntzeko elkarte (Bermeo).

Kukubedarra, Urdaibaiko emakumeen elkarte.

Norez, erakunde feminista.

Sorginorratz, erakunde feminista.

UNESCO Etxea Euskal Herria.

4. KULTUR IDENTITATEA ETA EUSKARA

AEK, euskaraz alfabetatzeko koordinakundea.

Agiri, Urdaibaiko arkeologia-elkarte.

Aldatz Gora, auzoko erakundea.

Ariatza Elkarte (Muxika).

Arrano Kultur Elkarte, kultur elkarte (Gernika-Lumo).

Astra koordinadora.

Bake-Leku, elkarte kultural-gastronomikoa.

Barrueta, Bermeoko kultur elkarte.

Busturialdeko dultzaineroak, dultzaineroen taldea.

Euskal Australiar Alkarte (Gernika-Lumo).

Euskal Herrian Euskaraz, euskararen aldeko mugimendua.

Galerna, itsasoari lotutako elkarte (Bermeo).

Gaztelugatxeko San Juan Komisia.

Gernika Batzordea, Gernikako memoria historikoari buruzko herri-batzordea.

Gernika Gogoratuz, bake-kulturaren eta memoriaren aldeko fundazioa.

Gernikako Aldaba, kultur elkarte.

Gernikazarra, Gernika-Lumoko historia-taldea.

Herriari Emon Arnasa Kultur Elkarte, kultur elkarte (Ea).

Herriko dantza tradizionalen taldeak.

Iparragirre Rock.

IPES-GITE, gizarte-azterketak sustatzeko institutua.

Jai-Alai, zesta-punta eskola (Gernika-Lumo).

Jizz Jazz kultur taldea, jazz-elkarte (Bermeo).

Kapilla Rock, elkarte (Bermeo).

Kantaguneak eta koruak.

Lobak, gazteak eta Gernika-Lumoko memoria historikoa.

Lurgorri Auzo-kultur Elkarte, Gernika-Lumoko auzoko elkarte.

Nuntxaku, musika-elkarte (Bermeo).

Ortube, itsas ondarearen elkarte (Bermeo).

Photeka, Gernika-Lumoko argazkilarien elkarte.

San Juan de Gaztelugatxe, boluntarioen elkarte (Bermeo).

Trinkete Anti-txoko, autokudeatutako musika elkarte.

Txistu talde eta bandak, musika tradizionalaren taldeak.

Urdaibaiko Galtzagorriak, ondarea zaintzeko boluntarioak.

Zine-klub Gernika.

2. ERANSKINA.

ARAZOAK ETA ERRONKAK (Ar-Erro) ETA ERRESISTENTZIAK ETA ALTERNATIBAK (Erre-AI) BUSTURIALDEA-URDAIBAIN

■ Arazoak eta erronkak (Ar-Erro)

1. INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA (Ar: araso / Erro: erronka)

Ar: Emari ekologikoetan eta eskualdeko horniduran ur-defizita.

Ar: Hazkunde azkarreko espezie exotikoen monolaborantza.

Ar: Ibaietako eta estuarioetako urak kutsatuta.

Ar: Ibilgailu partikularrak mugikortasunaren ardatz. Lurraldearen eta espazio publikoen okupazioa eta kutsadura.

Ar: Identifikaziorik eza Urdaibaiko biosfera-erreserbarekin.

Erro: Itsasoa, aukeren espazio.

Erro: Klima-aldaketa kostaldeko herrietan eta hirietan.

Ar: Kutsatutako lurzoruak Vega industrialdean (Gernika-Lumo).

Ar: Natur ingurua plastikoek kutsatuta.

Ar: Planeta osoko itsasoetan erauzketa-jarduera egiten duten atunketari-izozkailuak, jatorria eta egoitza soziala Bermeen dutenak.

Ar: Urdaibaiko Biosfera Erreserbako lankidetzakontseiluko kideen txandatze/berritze gutxi.

Erro: Urdaibaiko Biosfera Erreserba, informazioaren zabalkundea eta funtzioa.

Erro: Urdaibai Bird Centerren jarduera eteteko arriskua (Aranzadi Zientzia Elkarteak).

2. LURRAREN ESKURAGARRITASUNA (Ar: araso / Erro: erronka)

Ar: Baserrien eredu produktiboa gainbeheran, eta haren ordez, baso-, etxebizitza- eta turismo-erabilera.

Ar: Baso-lurrak enpresen eta transnazionalen eskuetan pilatuta.

Ar: Bide-azpiegitura handiak (Okako korridorea eta Sollubeko tunela).

Erro: Eskualdearentzako garapen-eredu integrala definitzea.

Ar: Lehen sektorearen jardueraren etengabeko gainbehera.

Ar: Urdaibai, parke tematiko eta paisajistiko huts bihurtuta.

3. GENERO-DESBERDINTASUNAK (Ar: araso / Erro: erronka)

Ar: Adineko emakumeek sozializatzeko aukerak mugatuta.

Ar: Desegituratutako familietako emakume gazteek prestakuntza akademiko mugatua.

Ar: Emakumeekiko egiturazko diskriminazioa.

Erro: Eskualdeko sare feminista.

Ar: Gernika-Lumoko genero-berdintasunerako zerbitzua geldirik.

Ar: Langabezia handia, emakumeei gehiago eragiten diena.

Ar: Mendekotasuna duten adinekoen ugaritzea eta emakumeen rol tradizionala.

Ar: Mundakako inauteri banandua.

Ar: Pobrezia, batik bat emakumeei eragiten diena.

4. KULTUR IDENTITATEA ETA EUSKARA (Ar: araso / Erro: erronka)

Ar: Astra eta Kabidxe, espazioaren erabilera «partikularra».

Ar: Baserriaren gainbehera, eraikinen galera landa-eremuan.

Ar: Etorkinen inklusioa.

Erro: Euskararen ahozko erabilera handitzea.

Ar: Guggenheim Urdaibai.

Ar: Kultur kontsumo pasiboa.

Ar: Musika-jaialdi komertzialak (Mundaka Festival = Biscay Bay Festival).

Erro: Rotondarik ez!, Pasealeku plazaren ordenamendu eta okupazio desegokiaren gaitzespena (Gernika-Lumo).

Ar: Turismoa aukeratzat eta mehatxutzat.

■ Erresistentziak eta alternatibak (Erre-Al)

1. INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA (Erre: erresistentzia / Al: alternatiba)

Erre: Basoen alde, eta basoen monolaborantzaren eta eukaliptizazioaren aurka.

Al: Bermeoko eskola-bidea.

Erre: Bizikletaren eta bizikleta-bideen aldeko apustua Gernika-Lumon eta Urdaibain.

Erre: Enaren Begiak, nuklearren aurkako artxiboa eta memoria historikoa (Ea).

Erre: Errigoitiko biomasa-zentrala eraikitzeari kontrakotasuna.

Al: Gernika-Lumoko eskola-bidea.

Al: Lurgozoren tokiko produktuak eta prestakuntza-hitzaldiak.

Al: Lurraldearen zaintza Urdaibain: ekosistemen askotariko zerbitzuak dituzten basoak (biodibertsitatea, ur-erregulazioa, karbono-isurbideak...).

Al: Txernobil, haurrak Urdaibaiko etxeetan hartzea denboraldi baterako.

Al: Urdabaso (Muxika) eta Amunategi (Busturia) kontserbazio-basoa.

Erre: Urdaibai Bird Center, ornitologiako ikerketa-zentroa.

Erre: Urdaibaiko Galtzagorriak webgunea.

Erre: Ure urre, Busturialdeko Ur Partzuergoaren aldeko plataforma.

Erre: Zain Dezagun Urdaibairen salaketak eta bloga.

2. LURRAREN ESKURAGARRITASUNA (Erre: erresistentzia / Al: alternatiba)

Al: Bizi-sare foroa eskualdeko garapen iraunkorrari buruz.

Al: Co-housinga baserrietan bakarrik dauden pertsonekin eta hutsik dauden eraikinetan.

Al: Jangurie, ikastetxeetako jangeletan tokiko produktuak erabiltzearen aldeko plataforma.

Al: Kooperatiben laguntza landa-eremuko egitasmoei (Lur-bizi, Jangurie...).

Al: Lehen sektoreko kooperatibak, lurreen nahiz itsasoan.

Erre: Lurraren Astea, gogoetarako eta alternatibak bilatzeko jardunaldiak.

Al: Nekazaritza-produktuen azoka ekologikoa Busturian.

Al: Piperra eta Gatza, herriko baratze ekologikoa (Gernika-Lumo).

Al: Tokiko nekazaritza-produktuen biltegia ikastetxeetarako.

Al: Zero Plastiko Urdaibai, itsasertzetik plastikoak erretiratzeko.

3. GENERO-DESBERDINTASUNAK (Erre: erresistentzia / Al: alternatiba)

Al: Bilgune, kulturarteko plataforma solidarioa.

Erre: Bizitza duina ahalbidetuko duten erretiro- eta alarguntasun-pentsioen eskaera.

Al: Bloke Laranja, etxebizitza-blokearen gazteen okupazioa (Bermeo).

Al: Danok Batera, Bermeoko elkartasun-sarea.

Erre: Ekintza bateratuak talde feministekin (Bermeo).

Erre: Elikagai-karabana Sahararako.

Erre: Emakumeen aurkako erasoen aurkako mobilizazioak eta azaroaren 25ekoak.

Erre: Gazteen sarea (Gernika-Lumo).

Al: Gizon-emakumeentzako antzerki tailerra.

Erre: Harrera, pertsona migratzaileentzako foro sozial solidarioa eta harrera-foroa.

Al: Lagunkoi, adinekoentzako elkartasun-plana (Bermeo).

Erre: Martxoaren 8ko plantoa eta greba feminista.

Erre: Sare feminista.

Al: Urdaibai Gazteak / Urdaibaiko Gazteen Programa.

4. KULTUR IDENTITATEA ETA EUSKARA (Erre: erresistentzia / Al: alternatiba)

Al: Aldaba aldizkariaren argitalpena.

Al: Astelelentxutxu, gazteen topalekua, elkarrekin komunikazio zuzena izateko (Gernika-Lumo).

Al: Astra asanblada, autokudeatutako espazio sozial eta kulturala.

Al: Astra txiki, umeentzako kultur espazio alternatiboa.

KASU-IKERKETA: URDAIBAI (EUSKAL HERRIA)

- Al: Bake-Leku hitzaldi-zikloa.
- Al: Berbalagun Bermeo, hizkuntza ikasten laguntzeko taldea.
- Al: Berbalagun Gernika-Lumo, hizkuntza ikasten laguntzeko taldea.
- Al: Bertsolaritza, poeta inprobisatzaileak euskaraz.
- Al: Bidehuts, diskoa argitaratzeko proiektu kolektibo autokudeatua.
- Al: Biztu irratia, irradi libre Astraran.
- Erro: Boikota Gernikan derrigorrez gazteleraz egiten diren epaiketei.
- Erre-Al: Danona Donea, herri-jaialdi alternatiboa (Mundaka).
- Al: Eako Poesia Egunak, poesiari buruzko jardunaldiak (Ea).
- Erre: Eskualdeko identitate komuna, dibertsitate intrintseko-estrinsekoan oinarrituta.
- Al: Etxe sozialaren proiektua eta Lurgorri kultur programa.
- Al: Euskal ezkontza (Mendata).
- Erre: Frantziskotarren konbentua. Eraispena saihestea. Bizkaiera-zentroaren proposamena (Forua).
- Al: Gernika 2037, memoria historikoari buruzko gizarte-proiektua.
- Al: Gernika-Lumoko jai-batzordea.
- Al: Herri-antzerkia: Zahagiaren hileta. Antzeztutako satira (Ariatza, Muxika).
- Al: Kabidxe, topaleku sozial autokudeatua (Bermeo).
- Al: Kate Sarea, beharra dutenentzako elkartasun-sarea.
- Al: Kultura eta Bakea nazioarteko jardunaldia.
- Erre: Larrinagako jauregia (Mundaka).
- Al: Lekuek, Gernika-Lumoko musika-jaialdia.
- Al: Marijesiak (Ea, Gernika-Lumo, Muxika).
- Al: Munduko arrozak eta kulturartekotasuna.
- Al: Musika tradizionalako, folkeko, fanfarreetako taldeak...
- Al: Nuntxaku Gauak, autokudeatutako kontzertua (Bermeo).
- Erre-Al: Pasilekue Bizirik, Pasealeku plaza dinamizatze komuna herri-proposamena (Gernika-Lumo).
- Al: Talako eguenak (Bermeo).
- Al: Txo! Alabatxi!, Bermeoko jai- eta txosna-batzordea.
- Al: «Urdaibai, lau ardatz». Urdaibai, lau ardatz identitatearen eta ekonomiaren garapenerako.
- Al: Urdaibaiko arkeologia-jardunaldiak.
- Erre: Zesta Bizi, zesta-punta zaintzeko proiektua

3. ERANSKINA.

GIZARTE ZIBILAREN ETA TOKIKO ADMINISTRAZIOEN ARTEAN EGITEN DIREN EGITASMOAK

1. INGURUMENAREN IRAUNKORTASUNA

Arrain Azoka, Bermeoko arrain-azoka.

Bermeoko eskola-bidea.

Gernika-Lumoko eskola-bidea.

Tonpoiko paisaia, paisaia lehengoratzeko proiektua (Bermeo).

Urdaibai Bird Center.

Zero Plastiko Urdaibai, plastikoen aurkako kanpaina itsasbaterrean.

3. LURRAREN ESKURAGARRITASUNA

Urriko Azken Astelehena (Gernikako azken asteleheneko azoka).

Jangurie, ikastetxeetako jangelak tokiko produktuekin.

Nekazaritza-azoka ekologikoa (Busturia).

Piperra eta Gatza, herriko baratze ekologikoa (Gernika-Lumo).

3. GENERO-DESBERDINTASUNAK

Azaroaren 25eko ekitaldiak.

Bermeoko Bizikidetza eta Dibertsitate Plana.

Martxoaren 8ko mobilizazioak.

4. KULTUR IDENTITATEA ETA EUSKARA

Astra, kultur sorkuntzarako fabrika (Gernika-Lumo).

Bekoportala, gizarte- eta kultur-zentroa (Bermeo).

Berbalagun.

Erreten parkea, partaidetza-aurrekontuen proiektua (Bermeo).

Euskal Jaia, euskal jai tradizionala (Ajangiz, Gernika-Lumo, Mendata).

KASU-IKERKETA: URDAIBAI (EUSKAL HERRIA)

Euskaraldia, euskararen erabilera sustatzeko programa.

Euskararen Aholku Batzordea, Bermeoko euskara-batzordea.

Euskararen plan estrategikoa (Bermeo).

Folklorearen Nazioarteko Jaialdia (Bermeo).

Jaietako eta txosnetako batzordeak.

Jazzber, jazz-jaialdia (Bermeo).

Kultur batzordeak.

Gernika Sarea

Berradiskidetzaren aldeko prozesuetan
laguntzeko nazioarteko sarea

Gernika Gogoratuz aztertegiak oso argi du adiskidetzeari ezinbesteko elementu gidaria dela bake askatzaile eta iraunkorra lortzeko prozesuetan, horren bidez egiturak eraldatu eta bidezkoagoak egiten baitira, egia historikoa lortzen baita eta biktimak ohoratzen baitira. **Gernika Sarea** 1997an sortu zen, eta batzarra egiten du urtero, Gernikako Kultura eta Bakearen Nazioarteko Jardunaldietan.

Artekalea, 1-1.º • E-48300 Gernika-Lumo •
Bizkaia (Spain)

Tel.: +34 94 6253558

Helbide elektronikoa: info@gernikagogoratuz.org

<http://www.gernikagogoratuz.org>

Argitalpen hau «Gatazka lurraldeak: ikerketa, formakuntza eta ekintza, gaitasunak sendotzeko eta bizitza alternatibak osatzeko» proiektuaren esparrukoa da, eta helburutzat du, batetik, Urdaibaiko Biosfera Erreserbako gatazka ekologiko, sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak aztertzea, eta bestetik, informazioa eta ezagutza sortzea, egungo eredu hegemonikoaren aurkako erresistentzia-esperientziak eta alternatibak babesteko.

Ikerketa horretarako oso garrantzitsua izan da eskualdeko eragile kolektiboen parte-hartzea, bai eta erreferentziatzko zenbait pertsonaren parte-hartzea ere; haien ekarpenak funtsezkoak izan dira, informazio, ezagutza eta baliabide garrantzitsuak eman baitituzte, azken hamarkadetan nagusitzen ari den eredu zentralizatzaile, merkantilista eta gizatasunik gabekoaren aurkako erresistentzia-esperientziei eta alternatibei buruz. Lan honen asmoa ez da Urdaibairen etorkizunerako eredu edo proposamen zehatz bat ematea, baizik eta eskualde horretako eragileen egungo esparrua aurkeztea, kezka komunak zein diren identifikatzeko; horretarako, dau den ekimenen ekarpenak ezagutarazi eta topaguneak eskaintzen dira, eragile desberdinek elkarren artean ikuspegiak eta proposamenak parteka ditzaten.

ISBN: 978-84-09-17642-7



9 788409 176427